

Zaldibarko zabortegia amildu eta bost urtera, jabeek ez dute ezer ere ordaindu lanengatik



Kronologia

2011. Zaldibarko zabortegia jardunean hasi zen

2019. Eusko Jaurlaritzako teknikariek 23 irregulartasun aurkitu zituzten zabortegian.

2020ko otsailaren 3a.

Joaquin Beltranek pitzadura handiak zeudela ohartarazi zion enpresari.

2020ko otsailaren 4a. Enpresak pitzadurak baieztatu zituen, baina ez zuen jarduera gelditu.

2020ko otsailaren 6a. Zabortegia amildu zen.

2020ko abuztuaren 16a. Alberto Sololuzeren gorpuzki batzuk aurkitu zituzten.

2021eko maiatzaren 14a.

Beltranen gorpua aurkitzeko lanak utzi zituzten.

2021eko iraila. Verter Recyclingeko arduradunek Beltranen eta Sololuzeren heriotzaren erantzukizuna aitortu zuten.

2023ko otsaila. BERRIAK jakinarazi zuen lurralde ordenamenduaren kontrako delitu zantzuak atzeman zituela Ertzaintzak, eta hala jakinarazi ziola auziko epaileari.

2023ko ekaina. Jaurlaritzak eskatutako txosten batek ohartarazi zuen zabortegiak ez zuela egonkortasun nahikorik.

2023ko urria. Jaurlaritzak bere gain hartu zituen zabortegia egonkortzeko lanak, Verterrek neurririk hartzen ez zuela ikusita.

2024ko abuztua. Jaurlaritzak zabortegia behin-behinean zigilatze lanak amaitutzat eman zituen.

- Eusko Jaurlaritzak hartu ditu bere gain hondakindegia zigilatze eta egonkortzeko lanak. Enpresa kudeatzaileak 30 milioi euro zor ditu.
- Ingurumen delituekin lotutako auziak instrukzioan daude oraindik ere.



Iñaut Matauko Rada

COVID-19aren izurritea bazterrak nahasten ari zenean gertatu zen Zaldibarko zabortegiaren luizia, duela bost urte. Hurrengo hila-beteetan, lerroburu asko hartu zituen gaiak. Joaquin Beltran eta Alberto Sololuze langileak hondakinen azpian harrapatuta gelditu ziren, eta haien gorpuk ez zituzten topatzen. Sei hilabetera aurkitu zituzten Sololuzeren gorpuzkiak, eta 2021eko maiatzean

eten zituzten Beltran topatzeko lanak. Lur mugimenduetan amiantoa azaleratu zen, suteak izan ziren, dioxinengatik kalean kirolak ez egitea gomendatu zuten inguruko herrietan, eta A-8 autobidearen parte bat itxita egon zen bost hilabetez. Herritarrak hainbatetan irten ziren kalera, erantzukizunak eskatzeko eta babes neurriak exijitzeko.

Hainbat afera hartu zituen auziak, eta garrantzitsuenetako bat zabortegiaren egonkortze eta

zigilatze lana izan zen. Bi fasetan egin dira lanak: luizia gertatu eta segituan, eta 2023 eta 2024 bitartean, berregonkortze bat egiteko. Verter Recycling enpresa kudeatzaileak egin behar zituen lan horiek, baina Eusko Jaurlaritzak egin ditu, modu subsidiarioan. Jaurlaritzako Industria, Transizio Energetiko eta Jasangarritasun Saileko iturriek baieztatu dutenez, enpresak oraindik ez du ezer ere ordaindu lan horienengatik.

Haritsua da gaia. Luizia jazo

eta berehala, Eusko Jaurlaritzak egonkortu eta zigilatu zuen zabortegia, eta 28,7 milioi euroko kostua izan zuten lanak. Ostera, berregonkortzeko beste lan batzuk egin behar izan zituen, ohartuta zabortegiaren kudeatzaileak, Verter Recycling-ek, ez zuela eremuan segurtasuna bermatzeko beharra betetzen. Hala, Jaurlaritzak ziurtatu duenez, 30 milioi euro baino handiagoa da enpresak duen zorra.

Verter Recyclingek zabortegiko

→ Zaldibarko zaborte-
gian suteak piztu ziren,
2020ko uztailan. LUIS
JAUREGIALTZO / FOKU

↓ Zaldibarko zabortegia,
estalkiekin zigilatuta, aste
honetako irudi batean. RAUL
BOGAJO / FOKU



lurrak eskaini zizkion administra-
zio publikoari, lanen lehenengo
fasetik eratorritako zorrak kita-
tzeko. Eusko Jaurlaritzak auke-
ra hori aztertu zuen, eta txosten
bat egin zuen, Sprilurren bidez,
zaborteziaren gainean industrial-
de bat eraikitzea bideragarri zen
aztertzeke. Txosten horren bi-
dez ohartu ziren eremua ez zela
egonkorra. Beste arazo batzuk ere
ikusi zituen: suteak, kontrolik ga-
beko gas emisioak, kiratsak...

Hori dela eta, Verterri hainbat

neurri hartzeko exijitu zioten:
«berehala» behin-behineko es-
taldura artifizial bat egitea, za-
bortegia behin betiko zigilatzea,
hondakinen egonkortasunaren
ikerketa bat egitea eta zaborte-
ziaren jarraipena egitea. Izan ere,
Geologia y Geotecnia Larrea
enpresako adituek adierazi zuten
zabortegia «larrialdi egoeran»
egonkortu zela, eta horren ostean
enpresak ez zuela gutxieneko
mantentze lanik egin. Verterrek
ez zuen hartu neurri horietako
bat bera ere, eta Eusko Jaurlar-
itzak lanei ekitea erabaki zuen,
«arriskutsua izan litekeelako per-
tsonentzat edo ingurumenerako».

Ondasunen bahimendua

Enpresak, beraz, oraindik ez
dio euro bat bera ere ordaindu
Eusko Jaurlaritzari egin behar
izan dituen lanengatik, eta zorra
handitzen ari da. Enpresak, bai-
na, likidazio prozesua hasi zuen
2021eko urrian, eta hartzekodu-
nen konkurtsoan sartu zen. Ho-
rrenbestez, Eusko Jaurlaritzak
enpresaren likidatzaileei eskatu
die zaborteziaren zigilatze eta
egonkortze lanetan aurreratuta-
ko dirua. Enpresa Jaurlaritzaren
diru eskaeren kontrako helegi-
teak jartzen ari da.

Industria Saileko iturriek baie-
zatu dutenez, legeak enpresaren
«arduradunengana jotzeko au-
kera» ematen du, eta gobernuak
hala egin du; baina zehaztu dute
bide penaletik irekita dauden
epaiek eten egin dituztela prozesu
horiek, eta auzibide horiek amai-
tutakoan emango dutela «izanda-
ko kostua ordaintzeko agindua».

Itxaron egin beharko da, beraz,
jakiteko Eusko Jaurlaritzari or-
daintutako zenbat itzuliko zaion.
Ikusteko dago ere zer eginkizun
izango duten aseguru etxeek,
epailetan akusazioaren parte bai-
tira. Eusko Jaurlaritzak esan du
ez duela aseguru etxeak «ordain-
tzera behartzeko» eskumenik.

Zaldibarko hondamendiaren

ondorioz zenbait auzibide ireki
ziren epaitegietan. Sololuzeren
eta Beltranen heriotzarekin lo-
tutakoa izan zen lehena. Verter
Recyclingek heriotza horien
gaineko erantzukizuna aitortu
zuen, eta kalte ordain bat eman
behar izan zien familiei, zuhur-
tziagabekeriazko hilketagatik;
kartzela zigorra ere ezarri zieten
enpresako arduradunei, baina
ez zituzten espetxeratu sei hila-
beteko kondenak zirelako. Bada
beste auzibide bat ingurumen
delituekin lotutakoa. Instrukzio
fasean dago oraindik, epailetako
egunik gabe.

Zaldibar Argituz plataforma-
ren iritziz, ikerketa judizialak
amaituta behar zuen dagoeneko.
«Zenbat denbora behar dute ins-
trukzioa amaitu eta ondorioak
kaleratzeko? Gu geu gogaituta
gaude», salatu du elkarteak ohar
bidez. Elkarteak Sololuze eta Bel-
tran oroitzeko ekitaldia egingo du
igande eguerdian, Eitzaga auzoan.

Ikerketaren luzapenak

Auzia konplexutasun tekniko
handikoa dela adierazi dute
prozesua ezagutzen dutenek,
eta haren gaineko ardura duen
Durangoko epaitegiko epaileak
behin baino gehiagotan luzatu
du instrukzioarako epea, azterketa
gehiago behar zirela argudiatuta.
Iazko azaroan luzatu zuen azke-
nengoz, eta ekainaren 6ra arte
du ikerketa judiziala amaitzeko
denbora, betiere beste luzape-

nik ez bada. Baina litekeena da
epailetako datorren urtera arte ez
hastea, instrukzioa amaitu ondo-
ren, akusazioak formulatzeko eta
defentsaren idatziak aurkezteko
epeak ireki beharko dira eta.

Ikerketaren fasea ixteko, falta
diren lanen artean dago Fiskal-
tza Ingurumen alorreko talde
teknikoaren txostena. Zabortegia
zergatik amildu zen aztertuko du,
eta zaborteziak izan duen bila-
kaerari erreparatuko dio.

Aurretik, beste zenbait peri-
tu txosten jaso ditu epaileak gai
beraren inguruan. Esanguratsue-
netako bat Cedex Espainiako Go-
bernuko Herri Lanetako Ministe-
rioaren esperientzia zentroak
aurkeztutakoa izan da. Cedexek
ondorioztatu zuen hainbat hu-
tsegite egin zirela zaborteziaren
proiektu teknikoetan eta haren
kudeaketan, eta ez zela behar
besteko kontrol publikorik izan.

Besteak beste, txostenean ja-
soa dute zaborteziaren oinarriko
iragazgaitze geruzaren gabeziek
bide eman ziotela hondamendia-
ri, hondoa isolatzeko erabili ziren
geomintzak euste erresistentzia
txikikoak zirelako. Cedexek na-
barmendu du enpresa behartua
zegoela bi aldeetatik zimurrak
diren geotestilak erabiltzera, ple-
guetan hala zehaztuta dagoelako,
baina enpresak beste batzuk era-
bili zituen: geotestil leunak edo
zimurrak alde batean bakarrik
zutenak. Ondorioz, zaborteziak
ezin izan zion eutsi pilatutako ma-

terialari, hondakinek irrist egin
zuten, eta mendia amildu zen.

Epaileak hamahiru lagun auzi-
petu ditu ikertu modura: zaborte-
giko arduradunak, zaborteziaren-
tzat lan teknikoak egin zituzten
Lurtek eta Geyser enpresetako
zenbait behargin eta Eusko Jaurlar-
itzako beste hiru teknikari. Azken
horiek epailearen aurrean adierazi
zuten euren ikuskaritza eta kontrol
lana behar bezalakoa izan zela.
Iragazgaitze geruzei bu-
ruz, esan zuten eurek ikusitakoak
bat zetozele legearekin.

Aldaketak eta okerrak

Cedexek hutsegite esanguratsuak
topatu zituen Geyser enpresak
zaborteziaren hasierako proiektu-
ari egin zizkion moldaketetan.
Bereziki, isurtze ontziaren iragaz-
gaitzeari dagokionez. Hura babes-
teko geomintza ez baitzen proiektu
teknikoetan zehaztutako bera.
Hau da, ez zen bi aldeetatik zimu-
rra. Geyserreko bost teknikari
ingurumen delituengatik eta do-
kumentu ofizialen faltsutzeagatik
ikertu ditu epaileak, baina azken
delitu horrekin lotutako jardue-
rak artxibatzea erabaki du.

Lurtek-i dagokionez, Cedexek
uste du huts larriak egin zituela
zaborteziaren egonkortasunari
buruz 2019an egin zuen azterke-
tan. Lurtekek ondorioztatu zuen
zabortegia egonkorra zela, eta
bete eta gero ere egonkorra izan-
go zela. Aldiz, Cedexek adierazi
du ordurako «oreka eskasean»
zegoela, eta Lurtekek arrisku ho-
rretaz ohartarazi behar zuela.

Zaborteziaren egonkortasun
faltaren jakitun ziren Verter
Recyclingeko arduradunak ere,
epaileen aurrean deklaratu zuten
beharginen esanetan. Amildu au-
rreko astean, arrakalez eta mugi-
menduen abiaduraren azkartzeaz
jabetu ziren enpresako kudeatzaile-
ak, zaborteziaren zerbitzu larria
gertatzen ari zen seinale.

Bada hirugarren auzi bat abian,
Espainiako Fiskaltzak 2023ko
urtearen memorian jaso zuenez.
Txostenaren esanetan, epaileak
ikerketa bat ireki zuen 2023an,
lurralde ordenamenduaren kontrako
balizko delituengatik. Iker-
keta sekretupean dago oraingoz.

Hondamendiaren urteurren-
aren atarian, Zaldibar Argituk
adierazi du Eitzagako hondamen-
dia «enpresariaren diru goseak»
eragin zuela, baina ez horrek ba-
karrik. «Enpresariaren egin zituzten
astakeria guztiak, baina zaborte-
ziaren jardura kontrolatu behar
zuen Eusko Jaurlaritzak modua
eman zirelako egin zituzten. Eusko
Jaurlaritzako inork ez du erant-
zukizun txikiena ere bere gain
hartu». Bost urteren ondoren,
justiziaren zain daude. ●



El colegio San Pelayo vivirá sus vigésimas Jornadas de la Ciencia

El alumnado organizará talleres para celebrar los 100 años de la mecánica cuántica en los que sensibilizará sobre su importancia

A. L. OSORO

ERMUA. El colegio San Pelayo celebrará la próxima semana sus vigésimas jornadas de la Ciencia, Arte y Tecnología. Comenzarán el lunes a las 11.30 horas con una presentación. Posteriormente, el alumnado de este centro conmemorará durante dos días los 100 años de la mecánica cuántica, ya que en 2025 se reconoce que ha pasado un siglo desde el desarrollo inicial de esta rama de la física.

Durante estas jornadas se realizarán ocho talleres, en horario de 14.45 a 16.45 horas, donde se explorarán conceptos de la física moderna y clásica, además de conocer a diferentes científicos y científicas que han hecho historia en este campo. Estas actividades pretenden

ayudar a sensibilizar sobre la importancia y el impacto de la ciencia cuántica y sus aplicaciones en todos los aspectos de la vida. La mecánica cuántica ha tenido un impacto profundo en la comprensión del universo y ha dado lugar a numerosas aplicaciones tecnológicas, como los transistores, láseres, la resonancia magnética tan utilizada en la sanidad, entre otros.

En este centro educativo se plantearán talleres sobre diferentes mundos, como 'el de los modernos', 'el de los clásicos', 'el microscópico', 'el nuclear' e 'inventos', entre otros.

También se llevarán a cabo las comisiones, que se trabajan a lo largo de todo el curso, y las presentaciones a las familias del alumnado de Educación Primaria e Infantil.

Mientras tanto, el alumnado de Educación Secundaria aproximará a los estudiantes y las familias a los glaciares, ya que Naciones Unidas ha declarado 2025 el año internacional de la conservación de estas enormes masas de hielo.



El año pasado se analizó la alimentación mediante insectos. **A. L.**

EN BREVE

CARRERA DE MONTAÑA

Abierta la inscripción para la Hiru Txikiak Trail

A. L. Ya se ha abierto la inscripción, a través de su página web, para participar en la prueba Hiru Txikiak Trail 2025. Esta prueba de 42 kilómetros, organizada por Artarrai Mendi Taldea, se puede disputar en la modalidad de trail o en marcha y subirá los montes de Urko, Oiz y Eguarbitza. Se disputará el 20 de septiembre de este año.

CINE EN EL ERMUA ANTZOKIA

Dos filmes nominados a los Oscar en la cartelera

A. L. La sala del Ermua Antzokia proyectará esta semana otros cuatro estrenos cinematográficos. Se podrán ver el drama social indio 'La luz que imaginamos', el thriller de ciencia-ficción español 'La fiebre de los ricos', el drama carcelario basado en hechos reales 'Las vidas de Sing Sing' – con 3 nominaciones a los Oscar – y la cinta de animación 'Flow, un mundo que salva', –2 nominaciones a los Oscar y premio en los Globos de Oro–.

ASOCIACIÓN LOCAL

El consistorio luce de verde contra el cáncer

A. L. Las voluntarias de la Agrupación Local de la Asociación contra el Cáncer han preparado la iluminación del consistorio ermuarra para que pueda lucir en verde, el color de la esperanza. Esta acción, organizada con motivo del Día Mundial Contra el Cáncer, que se conmemoró el pasado martes, se mantendrá hasta el domingo.



El cartel que anuncia la muestra recoge una de las fotos. **ÓSCAR BLANCO**

La exposición de Óscar Blanco captura la magia de un año de cultura

Lobiano acoge hasta el día 18 una muestra de fotografías de los espectáculos del Ermua Antzokia en 2024

AINHOA LASUEN

ERMUA. El fotógrafo ermuarra Óscar Blanco presenta su tradicional exposición anual en Lobiano Kultur Gunea, donde recoge imágenes de los espectáculos que han pasado por el Ermua Antzokia durante el año 2024.

La muestra, que permanecerá abierta hasta el 18 de febrero, se ha convertido en una cita imprescindible para los vecinos de la villa, que reviven los momentos más destacados de la programación del teatro y reconocen a artistas de la música y la escena.

La sala permanecerá abierta al público de lunes a viernes, de 18.00 a 20.00 horas, y los fines de semana, de 12.00 a 14.00 horas. La entrada es gra-

tuita.

Blanco, colaborador habitual del Departamento de Cultura, inició esta contribución al acervo ermuarra en 2012. Desde entonces, cada año selecciona una veintena de sus mejores fotografías, ofreciendo un recorrido visual por la cultura local. Se trata de trabajos fotográficos que son resultado de su vocación y afición. La exposición de este año no es una excepción, con una cuidada selección de imágenes que capturan la esencia de la música, el teatro y la cultura en Ermua.

Fotógrafo deportivo

Aunque es conocido en Ermua por sus fotografías de eventos culturales, este profesional tiene una amplia trayectoria como fotógrafo deportivo, especialmente en ciclismo. Hace cuatro años, ya expuso en Lobiano una muestra de sus impactantes fotografías ciclistas, sacadas en diferentes pruebas, entre las que él destacaba el Tour de Francia.

TELÉFONOS DE INTERÉS

URGENCIAS	
SOS DEIAK	112
DYA	943 464 622
HOSPITALES	
Hospital Mendaro	943 032 800
Ambulatorio de Eibar	943 032 500
Ambulatorio de Eibar (Torrekua)	943 032 650
Ambulatorio de Ermua	943 032 630
POLICÍA MUNICIPAL	
Eibar	943 708 424
Ermua	943 176 300
ERTZAINTZA	
Eibar	943 531 700
BOMBEROS Toda la provincia	112
TRANSPORTES	
Euskotren	944 333 333
Pesa Eibar	900 121 400
Bizkaibus	946 125 555
TAXIS	
Eibar	943 203 071
Ermua	943 171 733
AYUNTAMIENTOS	
Eibar (Centralita)	943 708 400
Eibar (Oficina de información a la Ciudadanía. Pegora)	010
Ermua	943 179 010

* EL CORREO no se hace responsable de cambios de última hora

CARTELERA DE CINE

EIBAR

COLISEO Merkatu Kalea, 2

No hay función

ERMUA

ERMUA ANTZOKIA Iparragirre s/n

No hay función

COMUNICACIONES

AUTOBUSES

EIBAR-SAN SEBASTIÁN

Laborables: 06.10*, 06.40*, 07.10*, 07.40, 08.10, 08.45*, 09.15*, de 10.10 a 21.10 cada hora, 13.15*, 18.10*, 19.10*.
Sábados: 6.40*, 7.10*, 8.10, 8.45*, 9.15*, de 10.10 a 20.10 cada hora, 13.15*, 15.10*, 16.10*, 18.10*, 19.10*, 20.10*, 21.30.
Domingos y festivos: 8.10, 10.10*, 12.10, 13.10, 15.10*, 17.10, 18.10, 19.10* y 21.45*.
*Salida desde Ermua diez minutos antes

SAN SEBASTIÁN-EIBAR

Laborables: 6.50, 7.20*, 7.50*, de 8.20 a 14.20 cada hora, 11.20*, 14.30*, 15.20*, 16.20*, de 18.20* a 22.20* cada hora.
Sábados: 6.50, 7.20*, 7.50*, de 8.20 a 21.20* cada hora, 11.20*, 14.20*, 16.20*, 17.20*, 18.20*, 19.20* y 22.35*.

Domingos y festivos: 9.20*, 11.20*, 13.20, 14.20*, 16.20, de 18.20* a 20.20* cada hora, y 22.20*.
*Llegada a Ermua

EIBAR-BILBAO (Autopista)

De lunes a viernes: Desde las 6.40 hasta las 20.40 cada hora. Sábados, domingos y festivos: Desde las 7.40 hasta las 21.40 cada hora.

BILBAO-EIBAR (Autopista)

Laborables: De 6.40 a 21.40 cada hora.
Sábados-festivos: 7.40 a 21.40 cada hora.

EIBAR-VITORIA

Laborables: 6.25, 6.40, 6.55 y de 7.30 a 22.30 cada hora.
Festivos: De 6.30 a 22.30 cada hora.

VITORIA-EIBAR

Laborables: 6.15, 7.00, 7.15, 7.45 y de 8.15 a 22.15 cada hora, 22.40 (sólo viernes).
Festivos: De 6.15 a 22.15 cada hora

EIBAR-ARRATE

Laborables: No disponible.
Sábados: 14.00
Festivos: 9.00, 10.00, 11.00, 13.00 y 18.00.

ARRATE-EIBAR

Laborables: No disponible.
Sábados: 14.30
Festivos: 9.30, 10.30, 11.30, 13.30 y 18.30.

EIBAR-ELGETA

Laborables: 6.30, 8.30, 11.00, 13.30, 15.30, 16.30, 18.30 y 20.30.
Festivos: 8.30, 11.30, 13.30, 15.30, 18.30 y 20.30.

ELGETA-EIBAR

Laborables: 6.50, 8.50, 11.20, 13.50, 15.50, 16.50, 18.50 y 20.50.
Festivos: 8.50, 11.50, 13.50, 15.50, 18.50 y 20.50.

EIBAR-HOSPITAL MENDARO

Laborables: 6.10, de 7.05 a 21.45 cada veinte minutos, y 22.15.
Sábados: De 7.00 a 22.00 cada hora.
Domingos: 7.20, de 8.00 a 21.00 cada hora, y 22.15.

HOSPITAL MENDARO-EIBAR

Laborables: 6.15, 6.50, 7.10, 7.20, de 7.50 a 21.10 cada veinte minutos, 22.05, 22.25 y 22.55.
Sábados y festivos: De 6.45 a 20.45 cada hora, 22.05 y 22.25.

TRENES

BILBAO-EIBAR

Laborables: 5.55. Diario: (De 6.55 a 20.55 cada hora), 9.34 y 20.34.
Sábado noche: 23.45, 1.45, 3.45 y 5.45.

EIBAR-BILBAO

Laborables: 7.09 y 8.09. Diario: (De 9.09 a 22.09 cada hora), 10.36 y 21.36. Noches: 2.06, 4.06, 6.02 y 7.30.

ERMUA-BILBAO

Laborables: 7.18 y 8.18. Diario: De 9.18 a 22.18 cada hora.

SAN SEBASTIÁN-EIBAR

Laborables: 5.50 y 6.50. Diario: De 7.50 a 20.50 cada hora, 9.20 y 20.20.

EIBAR-SAN SEBASTIÁN

Laborables: 6.06 y 7.06. Diario: De 8.06 a 21.06 cada hora, 10.35 y 21.35.

FARMACIAS

EIBAR

De 9.00 a 22.00: Azkue-Azkue (Toribio Etxebarria, 4).

ERMUA

De 9.00 a 22.00: Alcalá Etayo (Zubiaurre, 29).

EIBAR-ERMUA

Noche. De 22.00 a 9.00: Lekumberri Alberdi (Isasi, 31. Eibar).